

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gidari txarra izatea gene kontua ote?

ERREPIDEAN, egunero ez bada, askotan topo egiten dugu sustoren bat eman edo tontakeriaren bat egiten duen norbaitekin. Batzuek barkamena eskatzen badute ere, beste hainbeste dira egindako hutsa onartzen ez dutenak.

Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari batzuek, talde-portaerak aztertzen ari zirela, kasualitatez emaitza harrigarriak topatu zituzten automobila gidatzeko erari buruzko proba batzuetan. Aipatzen ez duten gene batean aldaketak zituzten pertsonen besteek baino emaitza kaxkarragoak -20% kaxkarragoak, hain zuzen— lortzen zituzten gidatzeko baimena eskuratzeko testetan.

Azterketa AEBetan egin zuten, eta aztertutako populazioa txikia da edozein ondorio zientifiko fidagarri ateratzeko, baina kontuan hartzen badugu AEBetako populazioaren 30% aldaketak dituela arestian aipatu genean, gidaritzako modua arakatzek uste baino emaitza interesgarriagoak izan ditzake; izan ere, gene-aldaketak memoria galerekin zerikusirik duelakoan baitaude.



AGUARUGBY FILES, WORDPRESS.COM

Antartikako izotz plakaren erruduna, karbono dioxidoa

Ezin uka karbono dioxidoaren hazkundea milaka azterketa zientifiko eragiten ari dela, batez ere planetaren berokuntzan daukan eragina. Oraintsu jakin denez, duela 33,5 milioi urte karbono dioxido kopurua txikitu egin zen, eta horren ondorioz sortu omen zen Antartikako kasko polarra.

<http://ttiki.com/7641> (Gaztelaniaz)

Zaldiak gripearen aurka

Gripearen birusek asko mutetzen dutenez, oso zaila da haien aurkako behin-betiko txertoa aurkitzea. Baina badi-rudi zaldiekin egindako urteetako saiakerek asko lagundu dezaketela txertoak garatzeko.

<http://ttiki.com/7641> (Gaztelaniaz)

Planeta guztietan euria ez da urezkoa



FISUKAMS FILES, WORDPRESS.COM

COROT-7b planeta eta COROT-7 izarra.

COROT-7b izeneko planeta COROT-7 izarren inguruan biran dabil, eta Ilargiari Lurrarekin gertatzen zaion antzera, beti aurpegi bera erakusten dio bere eguzkiari. Aurpegi horretako tenperatura 2.300 gradukoa da, eta aldiz, beste aldean ez da zero azpitiko 220 gradutik pasatzen.

Planeta hori joan den otsailean topatu zuten COROT teleskopioari esker. Ia Lurraren bi halako da diametroan, eta sei halako masan. Atmosfera izan badu, baina hona hemen berezitasuna: “euri-frontea” azaltzen denean, harriak dira airean kon-

ponentsatzen direnak, eta “euria” egitean harriak erortzen dira lainoetatik lurrera.

Ikertzaileen arabera, planeta honen interesa “atmosfera” buruz dugun pentsamendu finkoa haustean datza; beste hitz batzuekin esanda, unibertsoan oso atmosfera desberdinak topatu ditzakegula.

Elikagaien osagaiekin kezkatuta Frantzian

Frantziako Elikagaien Seguratasunerako Agentziak behategia zabaldu zuen urriaren 29an, elikagaien osagarrien kontsumoak izan ditzakeen bigarren mailako efektuak aztertzeko. Antza, hainbat erakundek alarma piztu du arestian aipatu produktuak direla eta

<http://ttiki.com/7643> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza[®]
interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16